**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA**

**2017ko uztailaren 28a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamazazpigarren urteko uztailaren 28an, ortziralea, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguia Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia eta Oier Iantzi Ordoki jaun-andreak.

Ez dira agertu Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia zinegotzi jaun-andreak, eta ez etorri izana justifikatu dute.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkurako 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

**28 de julio de 2017**

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes 28 de julio del año dos mil diecisiete, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia y don Oier Iantzi Ordoki.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, es tenido en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la

aritu dira:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2017ko ekainaren 16koa.

**2 – HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA (ELTZETA KALEA 11)**

Eltzeta kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina, bortz etxebitza eta merkataritza-lokal batez osatuta dago. Horren jabekideek eraikuntzaren kanpoko aldean igogailua jartzea sustatzen dute (Licobrme/2017/26 espedientea), eta horretarako Hiri-Jarduketako Plan Berezia (H.J.P.B.) aurkeztu dute, bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoaren memoriaz osaturik dagoena. Dokumentua César Irijalba Asurmendi arkitekto tekniko jaunak idatzia da (Udaleko Erregistro Orokorreko 977 zenbakiko sarrera, 2017ko martxoaren 29koa).

Udaleko Osoko Bilkurak, 2017ko maiatzaren 19an egindako saioan, aipatutako H.J.P.B.-ri hasierako onespena eman zion.

Abenduaren 20ko, Lurraldearen antolamendua eta Hirigintzari buruzko, 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikuluak ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean ikusgai egon da hilabetez honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: maiatzaren 30ean, *Diario de Navarra* eta

convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 16 de junio de 2017.

**2 – APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA (ELTZETA KALEA 11)**

El inmueble situado en el nº 11 de la calle Eltzeta, comprende cinco viviendas y un local comercial. Sus copropietarios promueven la instalación de un ascensor en el exterior del edificio (expediente Licobrme/2017/26), para lo que han presentado un Plan Especial de Actuación Urbana (P.E.A.U.), que comprende una memoria de viabilidad y sostenibilidad económica. El documento está redactado por el arquitecto técnico don César Irijalba Asurmendi (entrada nº 977, de fecha 29 de marzo de 2017, en el Registro General del Ayuntamiento).

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 19 de mayo de 2017, aprobó inicialmente el citado P.E.A.U.

Conforme a lo dispuesto por el artículo 74.1.a) de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública, durante un mes, mediante edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario

*Diario de Noticias* egunkarietan, eta 106. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2017ko ekainaren 2koan. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia aztertu ondotik, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

1º) Behin betikoz onartzea Hiri-Jarduketa Bereziko Plana, Eltzeta kaleko 11n igogailua jartzeko.

2º) H.J.P.B.-ren ale bat bidaltzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari, emandako informeen eta Herritarren Parte-hartze Planaren tramitazioari buruzko kopia konpultsatuekin batera.

3º) Behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta akordio hau sustatzaileei jakinaraztea.

de Noticias el día 30 de mayo y en el Boletín Oficial de Navarra nº 106, de 2 de junio de 2017, sin que durante ese periodo se haya presentado alegación alguna.

A la vista de todo ello el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, acuerda:

1º) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana para la instalación de un ascensor en el nº 11 de la calle Eltzeta.

2º) Enviar al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra un ejemplar del P.E.A.U., junto con fotocopias compulsadas de los informes emitidos y de la tramitación relativa al Plan de Participación Ciudadana.

3º) Que se publique la aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Navarra, notificando el presente acuerdo a los promotores.

**3 – 7,5 M²-KO JABEGOAREN ZESIOA, IGOGAILU BAT ERAIKITZEKO ELTZETA 11N**

Eltzeta kaleko 11 zenbakiko jabekideek igogailu baten instalazioa sustatzen dute (Licobrme/2017/26 espedientea). Hori ezin denez eraikinaren barruan egin, beharrezkoa da bide publikoko 7,50 m²-ren okupazioa, egun aparkatzeko erabiltzen dena. Plan Bereziko PS7 planoan, horren kopia espedientean dago, azaltzen da grafikoki zein den okupatu beharreko espazioa.

Horren inguruan, Udaleko idazkariak

**3 - CESIÓN DE LA PROPIEDAD DE 7,5 M² PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UN ASCENSOR EN ELTZETA 11**

Los copropietarios del nº 11 de la calle Eltzeta promueven la instalación de un ascensor (expediente Licobrme/2017/26). No siendo posible hacerlo en el interior del edificio, resulta precisa la ocupación de 7,50 m² de vía pública, destinada actualmente a aparcamiento. En el plano PS7 del Plan Especial, copia del cual obra en el expediente, se representa gráficamente cual es el espacio a ocupar.

Al respecto el secretario del Ayuntamiento

2017ko maiatzaren 4an informea eman zuen.

Udaleko Osoko Bilkurak, maiatzaren 19an eginiko bileran, honako akordioak hartu zituen:

1°) Hasiera batean onestea Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Eltzeta karrikako 11.ean igogailua jartzeko.

2°) Espedientea hastea aipaturiko eraikinaren alboko herri titulartasuneko 7,5 m²-ko azaleraren jabetza emateko.

Espedientea jendaurrean ikusgai egon da hilabetez, honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: maiatzaren 30ean *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, eta 106. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2017ko ekainaren 2koan. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Bertzalde, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 13.1 artikuluak, urriaren 18ko 1990/280 Foru Dekretu bidez onartutakoak, ezartzen du jabetza publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea automatikoki gauzatzen dela, espedientea sortzeko beharrik gabe, honako kasuetan: "a) Hiri-antolaketako planen eta obra eta zerbitzuen proiektuetako behin betiko onespenetan".

Udaleko osoko bilkurak, bilera honen beraren aurreko puntuan, behin betikoz onetsi du Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Eltzeta kaleko 11 zenbakian igogailua paratzeko. Ondorioz, instalazio horrek okupatu behar duen azalerak dagoeneko ondare-ondasun kalifikazioa du.

emitió un informe con fecha 4 de mayo de 2017.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 19 de mayo, adoptó los siguientes acuerdos:

1°) Aprobar inicialmente el Plan Especial de Actuación Urbana para la instalación de un ascensor en el nº 11 de la calle Eltzeta.

2°) Iniciar el expediente para ceder la propiedad de los 7,5 m² de superficie de titularidad pública colindantes con el citado edificio.

El expediente ha sido sometido a información pública, durante un mes, mediante edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario de Noticias, el día 30 de mayo, y en el Boletín Oficial de Navarra nº 106, de 2 de junio de 2017, sin que durante ese periodo se haya presentado alegación alguna.

Por otra parte, el artículo 13.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, aprobado mediante Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, establece que la alteración de la calificación jurídica de los bienes de dominio público se produce automáticamente, sin necesidad de expediente, en los siguientes casos: "a) Aprobación definitiva de los planes de ordenación urbana y de los proyectos de obras y servicios".

El Pleno del Ayuntamiento, en el punto anterior de esta misma sesión, ha aprobado definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana para la instalación de un ascensor en el nº 11 de la calle Eltzeta. En consecuencia, la superficie cuya ocupación está prevista por esta

Udaleko Hirigintza Batzordearen baitan aztertu da 7,5 $m^2$ horien balioa. Adierazten dute, hasiera batez, $m^2$ bakoitzeko 200 eurokoa izanen litzatekeela. Kontuan izanik 5 solairurako eraikiko dela, kalkulua honako hau da: 200 x 5 x 7,5 = 7.500 €.

Bertzalde, besterentze zuzena egin daiteke, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 134.1 artikuluko c) eta d) atalek ezarritakoaren arabera.

Hori guztia ikusirik, Osoko Bilkurak, kideen aho bateko botoarekin (horrela legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta), honako hau erabaki du:

1°) Deklaratzea aipatutako 7,5 $m^2$-ko partzelaren besterengarritasuna.

2°) Aipatu partzela zuzenean saltzea, 7.500 eurogatik, Eltzeta kaleko 11 zenbakiko eraikineko jabekideei.

3°) Erabaki honen berri ematea sustatzaileei.

**4 – "OINEZ BASOA 2017" HITZARMENA**

Espedientean jasoa dago *Lesakako Udal Txit Gorenaren, Tantirumairu Ikastolaren eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen (NIE) Hitzarmena, Oinez Basoa 2017 proiektua Lesakako Udalerrian gauzatzeko.* Zuzendutako bertsioa da, Udalak eskatutakoaren araberakoa (Udaleko Erregistro Orokorrean 2341 zenbakiko sarrera,

instalación, tiene ya la calificación de bien patrimonial.

En el seno de la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento se ha examinado el valor de esos 7,5 $m^2$. Señalan que, en principio, sería de 200 € el $m^2$. Teniendo en cuenta que se edificará para 5 alturas, el cálculo es: 200 x 5 x 7,5 = 7.500 €.

Por otra parte, cabe la enajenación directa, conforme a lo establecido por el artículo 134.1 apartados c) y d) de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra.

A la vista de todo ello, el Pleno, con el voto unánime de los corporativos (lo que supone la mayoría absoluta de su número legal de sus miembros), acuerda:

1°) Declarar la alienabilidad de la citada parcela de 7,5 $m^2$.

2°) Venderla directamente, por la cantidad de 7.500 €, a los copropietarios del inmueble situado en la calle Eltzeta n° 11.

3°) Que se notifique el presente acuerdo a los promotores.

**4 – CONVENIO "OINEZ BASOA 2017"**

Consta en el expediente el *Convenio de colaboración entre el M.I. Ayuntamiento de Lesaka, Tantirumairu Ikastola y la Federación de Ikastolas de Navarra (NIE), para llevar a buen fin el proyecto Oinez Basoa 2017 en el término municipal de Lesaka.* Se trata de una versión corregida, conforme a lo indicado desde el Ayuntamiento

2017/07/24koa). Erreferentzia: Denetarik/2017/7.

Landaketaren deskribapena *2017-2018ko kanpainian Lesakako komunalean burutu behar diren baso lanak* izena duen proiektuan jasotzen da. Enrique Moreno Santa Eugenia basogintzako ingeniari teknikoak idatzi du (Udaleko Erregistro Orokorrean 1987 zenbakiko sarrera, 2017/06/20koa) eta Oinez Basoa 2017 Hitzarmenean sartzen ez diren beste lursail batzuk ere hartzen ditu. Proiektuko 2 zenbakia duen planoak Frain eta Ziobin dauden bi lursail erakusten ditu, basoberritzearen objektu izango direnak eta osotara 9,05 Ha-ko azalera dutenak.

Udalak landaketa lanak egiteko kontratua lizitaziora aterako du. Halaber, dagozkion ordainketa guztiak egingo ditu, kontratua udal-funtsekin eta Nafarroako Gobernuari eskatuko zaion diru-laguntzarekin bakarrik finantzatuko delarik.

Espedientea Udaleko Mendiko Batzordeak aztertu zuen, ekainaren 19an eginiko bileran. Bertan adierazten da egin beharreko jarduerak, Udalaren onespena izan beharko dutela.

Aitzineko guztia ikusirik, Udaleko Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

1º) Onestea *Lesakako Udal Txit Gorenaren, Tantirumairu Ikastolaren eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen (NIE) Hitzarmena, Oinez Basoa 2017*

(entrada nº 2.341, de 24/07/2017 en el Registro General del Ayuntamiento). Referencia: Denetarik/2017/7.

La descripción de la plantación se halla en el proyecto titulado *Trabajos forestales a realizar en los montes comunales de Lesaka en la campaña 2017-2018.* Ha sido redactado por el ingeniero técnico forestal don Enrique Montero Santa Eugenia (entrada nº 1.987, de 20/06/2017, en el Registro General del Ayuntamiento) e incluye también otras fincas no comprendidas en el convenio Oinez Basoa 2017. El plano nº 2 del proyecto muestra las dos fincas situadas en Frain y Ziobi, que serán objeto de repoblación y cuya superficie total es de 9,05 Has.

El Ayuntamiento sacará a licitación del contrato para realizar los trabajos de plantación. Efectuará, asimismo, todos los pagos correspondientes, financiándose el contrato exclusivamente con fondos municipales y la subvención que será solicitada al Gobierno de Navarra.

El expediente fue estudiado por la Comisión de Montes del Ayuntamiento, en reunión celebrada el día 19 de junio. Indica en el mismo que las actividades a realizar, tendrán que contar con la aprobación del Ayuntamiento.

A la vista de todo ello, el Pleno del Ayuntamiento, con el voto unánime de sus miembros, acuerda:

1º) Aprobar el *Convenio de colaboración entre el M.I. Ayuntamiento de Lesaka, Tantirumairu Ikastola y la Federación de Ikastolas*

*proiektua Lesakako Udalerrian gauzatzeko.*

2º) Erabaki honen berri ematea Tantirumairu Ikastolari eta Nafarroako Ikastolen Elkarteari.

**5 – AURREKONTUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA (1/2017 ZENBAKIKO ESPEDIENTEA)**

Ekainaren 13an kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2017. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 125.479,00 €-ko hornidura kontusail batera. Berau, honako hauetara zuzenduko da: Kultura-Etxera, igerilekuetako akatsak konpontzera, eta landaketa eta baso lanetara.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioko Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1º) Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 1/2017 espedientea.

2º) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

*de Navarra (NIE), para llevar a buen fin el proyecto Oinez Basoa 2017 en el término municipal de Lesaka.*

2º) Que se notifique el presente acuerdo a la Ikastola Tantirumairu y a la Federación de Ikastolas de Navarra.

**5 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE Nº 1/2017)**

En un informe emitido por el interventor con fecha 13 de junio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2017.

Contempla la dotación de 125.479,00 € a una partida. La misma se destinará a la Casa de Cultura, subsanación de deficiencias en las piscinas y plantación y trabajos forestales.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 1/2017.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**6 – AURREKONTUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA (2/2017 ZENBAKIKO ESPEDIENTEA)**

Uztailaren 4an kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2017. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 25.000,00 €-ko hornidura kontusail batera. Berau, Irain Eskola Publikoko inbertsioetara zuzenduko da.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioko Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1°) Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 2/2017 espedientea.

2°) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkien taulan iragarrita, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**6 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE N° 2/2017)**

En un informe emitido por el interventor con fecha 4 de julio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2017.

Contempla la dotación de 25.000,00 € a una partida. La misma se destinará a inversiones en el Colegio Público Irain.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1°) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 2/2017.

2°) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**7 - JOSE MAYA CHOPERENAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA**

2017ko ekainaren 27an aurkezturiko eskaera aztertuta (2047. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1°) Nafarroako Gobernuko Oihanaren

**7 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JOSÉ MAYA CHOPERENA**

Examinada la instancia presentada con fecha 27 de junio de 2017 (entrada n° 2.047 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1°) Tramitar ante el Servicio de Gestión

Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea José Maya Choperena jaunak eginiko eskaera, intsinis pinuren, haritz amerikarren eta akazien matarrasa egiteko, Gardelsorokoerreka parajean. Moztu behar den azalera 14.000 $m^2$-koa da. Katastroko 10. poligonoko honako lurzatiei dagokie: 232 partzela eta 49 partzelaren D azpipartzela (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/16).

2°) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3°) Eskatzaileari jakinaraztea finka hori komunal ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don José Maya Choperena, para realizar una matarrasa de pino insignis, roble americano y acacias en el paraje de Gardelsorokorerreka. La superficie de corta es de 14.000 $m^2$. Corresponde a la parcela 232 y a la subparcela D de la parcela 49, situadas ambas en el polígono 10 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/16).

2°) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Asimismo, tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3°) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

8 – JOSE ANTONIO UBIRIA MAYAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA

2017ko ekainaren 26an aurkezturiko eskaera aztertuta (2036. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1°) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea José Antonio Ubiria Maya jaunak eginiko eskaera, intsinis pinuren eta haritz amerikarren entresaka egiteko, Amargun parajean. Moztu behar den azalera 70.000 $m^2$-koa da. Katastroko honako lurzatiei dagokie: 10. poligonoko 220 partzelako A eta M azpitzartzelak eta 218 partzelako A azpipartzelaren zatia, eta 1. poligonoko 288 partzela (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2017/15).

2°) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

8 – APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JOSÉ ANTONIO UBIRIA MAYA

Examinada la instancia presentada con fecha 26 de junio de 2017 (entrada nº 2.036 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1°) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don José Antonio Ubiría Maya, para realizar una entresaca de pino insignis y roble americano en el paraje de Amargun. La superficie de corta es de 70.000 $m^2$. Corresponde a las subparcelas A y M de la parcela 220, a parte de la subparcela A de la parcela 218 (ambas en el polígono 10) y a la parcela 288 del polígono 1 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2017/15).

2°) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Asimismo, tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3°) Eskatzaileari jakinaraztea finka hori komunal ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

3°) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

**9 – ALTSASUKO GERTAKARIEN INGURUKO AKORDIO**

Espedientean ageri da uztailaren 20an jasotako akordio-proposamena (2316 zenbakiko sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean).

Osoko Bilkurak, aho batez onartu du hura, eta, ondorioz, honako akordioak hartu ditu:

1°) Lesakako Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.

2°) Lesakako Udalak konpromiso irmoa adierazten du elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.

3°) Lesakako Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten du egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiena izan behar lukeela.

**9 – ACUERDO SOBRE LOS HECHOS DE ALTSASU**

Consta en el expediente una propuesta de acuerdo formulada el día 20 de julio (entrada n° 2.316 en el Registro General del Ayuntamiento).

El Pleno la aprueba por unanimidad y, en consecuencia, adopta los siguientes acuerdos:

1°) El Ayuntamiento de Lesaka manifiesta su total disconformidad ante la petición de penas realizada por la Fiscalía y muestra una gran preocupación con la evolución de los acontecimientos, teniendo en cuenta que el caso ha llegado a una desmesura e injusticia intolerables.

2° ) El Ayuntamiento de Lesaka manifiesta su firme compromiso hacia la convivencia, la justicia y el respeto de los derechos humanos de todas las personas, porque son principios propios de un estado democrático y de derecho y manifiestan que la desmesura que rodea a este caso va en contra de la normalidad y la convivencia democrática.

3°) El Ayuntamiento de Lesaka apoya la motivación de la Audiencia Provincial de Navarra, cuando indica que en los hechos no hay indicios para calificarlos de terrorismo y, por ello, cuando confirma que la competencia para la tramitación y juicio de los hechos sucedidos en Altsasu el pasado 15 de octubre, debería corresponder a la Audiencia de Pamplona.

**10 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

**10 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se formula cuestión alguna.

**11 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Ez da izan.

**11 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se producen.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zortziak eta hamar minutu direnean eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Siendo las veinte horas y diez minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.